

2012/03/06(e)ko saioa

HERRIZAINGO SAILA

Herrizaingo Sailak 5.400.000 euro inbertituko ditu IBMko programa informatikoetan

INDUSTRIA, BERRIKUNTZA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA

Eusko Jaurlaritzak 4,6 milioi euro emango dizkie Euskadiko saltokiei moderniza daitezen

2 milioi euro oraindik ustiatu gabeko guneeetan turismo-enpresen sorkuntza bultzatzeko

Teknologia-oinarria duten eta/edo berritzaileak diren enpresen inbertsioak 26 milioi euroekin finantzatuko ditu Eusko Jaurlaritzak

Epsilonek 3,3 milioi itzuli beharko ditu, hartutako konpromisoak ez betetzeagatik

3 milioi euro baino gehiago Euskadiko turismoaren lehiakortasuna hobetzeko

Eusko Jaurlaritzak laguntzetan emango dituen 1.346.000 euroekin modernizatu ahalko dira turismo-establezimenduak

ENPLEGU ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA

Euskadik seme-alabentzako laguntza ematen jarraituko du, krisia eta estatuan izandako murrizketak gorabehera

OSASUN ETA KONTSUMO SAILA

Prestakuntza sanitario espezializatuaren egitura arautzen duen dekretua onartuta

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

Eusko Jaurlaritzak 21.300.000 euroko kreditua bideratu du FEADER eta FEAGA funtsetatik

KULTURA SAILA

Eskoriatzako Atxorrotzeko Gazteluaren Gune Arkeologikoa (Gipuzkoa) monumentu

kategoriako sailkatutako kultura-ondasun deklaratu da

HERRIZAINGO SAILA

Herrizaingo Sailak 5.400.000 euro inbertituko ditu IBMko programa informatikoetan

Erabakia, Herrizaingo Sailak IBM softwarea alokatzeko 5.000.000 eurotik gorako aurrekontua kontratatzea baimentzeko dena

Zerbitzuen plataforma mantentzeko eta eguneratzeko

Gobernu Kontseiluak Herrizaingo Sailak bere zerbitzuen plataforma mantentzeko eta eguneratzeko behar duen IBMko software informatikoa erostea onartu du, gaurko bileran.

Herrizaingo Sailak IBMko programa batzuen baimenak erosiko ditu, baita programen eguneraketa zerbitzuak ere. Sailaren aplikazio informatiko gehienen oinarriak diren programa horien baimena 2012ko abenduaren 31ra arte izango dute, eta 5.400.000 euroko balioa izango dute.

Programa horiek Ertzaintzak eta Herrizaingo Sailak erabiltzen dituzten aplikazio informatiko ugarien oinarriak dira.

INDUSTRIA, BERRIKUNTZA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA

Eusko Jaurlaritzak 4,6 milioi euro emango dizkie Euskadiko saltokiei moderniza daitezen

Ebazpena, 2012ko martxoaren, Merkataritza eta Turismoko sailburuordearena; honen bidez, merkataritza-ekipamenduak modernizatzeko laguntza-programan ezarritako diru-laguntzak 2012ko ekitaldian emateko deialdia egiten da

Eusko Jaurlaritzak % 11 igo ditu merkataritza modernizatzeko laguntzak, berritu diren saltokien kopuruari dagokionez (3.000tik gora) eta sortu duen eragindako inbertsioari dagokionez (80 milioi eurotik gorakoa 2 urtean) lortutako emaitzengatik.

Eusko Jaurlaritzak Euskadiko merkataritza modernizatzeko laguntzak onartu ditu gaurko Kontseiluan. 4,6 milioi eurotik gorako laguntza horiek % 11 igo dira 2011ko zifren aldean.

Azken bi urte hauetan Jaurlaritza laguntza horien aldeko apustua egiten ari da, eta oraindik ere eusten zaie lortutako emaitzak apartak direlako; izan ere, deialdi guztiak arrakastaz amaitu dira eta apustu horri esker sektoreko inbertsioa sustatu da, aldi horretan 80 milioi euroko inbertsioa egin baita, zailtasun ekonomikoko garaian gauden arren.

Renove plan horri jarraiki saltokiei itzuli beharrik gabeko diru-laguntzak ematen zaizkie; zehazkiago, % 15eko diru-laguntzak altzarrietan, establezimenduak eraberritzeko obretan, askotariko ekipamenduetan,

argiztapenean, errotuluetan eta abarrean egindako inbertsioetarako, eta % 20ko diru-laguntzak ekipo informatikoetan, aplikazioetan edo osagarrietan egindako inbertsioetarako, hurrenez hurren. Ehuneko horiek handiagoak ere izan daitezke baldin eta enpresak Euskadin ugari diren merkataritza-elkarteren bateko kide badira edo kalitate-ziurtagiriren bat lortu baldin badute.

Merkataritza-jarduera duten ETEak izango dira laguntzen hartzaileak, eta merkataritza-jardueratzat hartuko da xede horretarako eskuratutako salgaiak edo produktuak, bere horretan, funtsezko eraldaketarik gabe, merkatuaren esku jartzea, baita ekoizleek, artisauek edo industrialek, eurek zuzenean, kontsumorako ondasunak saltzea ere, baldin eta ondasun horiek ekoizteko, merkaturatzeko edo hirugarrenei zerbitzuak eskaintzeko prozesuetan sartuko ez diren ondasunak badira.

Diru-laguntza jasotzeko aukera izateko, inbertsioek 600 eurotik gorakoak izan behar dute ekipamendu informatikoei dagokienez edo 2.000,00 eurotik gorakoak gainerako kasuetan; bestalde, establezimendu bakoitzeko lor daitekeen gehieneko diru-laguntza 12.000 # izango da.

Plan hori 2010ean jarri zen abian, 2015erako Merkataritzaren Egokitze Plana onartzean egiaztatu zenean Euskadiko saltokiak, batez beste, zazpi urtean behin eraberritzen zirela. Datu horren berri izatean, batez besteko epe hori murrizteko eraberritze-prozesuei ekiteko laguntzak emateari lehentasuna eman zion Eusko Jaurlaritzak. Bi urte hauetan, programa horri esker 3.000 saltokitik gora modernizatu ahal izan dira, eta jasotako laguntzen % 90 merkataritza-lokala eraberritzera bideratu da.

Egun bizi dugun egoera ekonomikoa gorabehera, Euskadiko saltokien partaidetza handia izateak, eta ia azko emaitzek (horiek erakusten dute merkataritzak eutsi diola enpleguari) adierazten dute Euskadiko saltokiek ahaleginak egiten dituztela beren eskura jartzen diren prozesuetan hobetuz; esate baterako, saltokien kalitatea, berrikuntza eta modernizazioa.

Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailak jarduera igotzen jarraitzeko beharrezkoak diren baliabideak Euskadiko saltokien eskura jartzeko bidetik jarraituko du, 2010-2013 aldiko Lehiakortasun Planean eta 2015erako Merkataritzaren Egokitze Planean ezarrita dagoenaren arabera; izan ere, plan horien bidez Euskadirentzat merkataritza lehiakorra eta kalitatezkoa sustatu nahi da.

2 milioi euro oraindik ustiatu gabeko guneetan turismo-enpresen sorkuntza bultzatzeko

Ebazpena, 2012ko martxoaren 12koa, Merkataritza eta Turismoko sailburuordearena; honen bidez, turismo enpresak modernizatzeko laguntza-programan ezarritako diru-laguntzak 2012ko ekitaldian emateko deialdia jakinarazten da

Eusko Jaurlaritzak aurrera jarraitzen du turismoaren aldeko bere apustuarekin, enplegua eta aberastasuna sortzen duen elementua baita, Gauzatu-Turismo programaren bidez, 2 milioi euroekin, eta gainera, sektoreko kalitatea ere bultzatzen du kalitatea bera ezartzeko eta garatzeko laguntzekin.

Eusko Jaurlaritzak bere Kontseiluaren bidez onartu du laguntzen bidez bi milioi euroko diru-kopurua ematea inbertsioa eta turismo-garapenerako interes estrategiko bereziko enpresen sorkuntza bultzatzeko. Helburua zera da, turismo-enpresa berriak sortzea nola turismo-produktuaren ikuspegitik hala lurraldearen ikuspegitik oraindik behar bezala garatu ez diren segmentuetan, eta, horri esker, kalitatezko eskaintza lehiakorren garapena eta dibertsifikazioa erraztuko da, egungo eta etorkizuneko eskariari erantzuteko gai izango dena.

Aurkezteko epea 2012ko apirilaren 10ean finkatuta duen programa honek hainbat aukera biltzen ditu, hala nola eraikin berri bat egitea edo eskuratzea, hotel gisa erabiltzeko; lehendik badagoen eraikin bat birgaitzea edo modernizatzea, hotel gisa erabiltzeko, eta aurretik badauden hotelen instalazioak eta ekipamenduak zabaltzea. Era berean, bilduta dago eraikinak eraiki edo birgaitzeko aukera, landetxe edo apartamentu turistiko gisa erabiltzeko, kanpinak eraiki eta hobetzeko aukera, eta abar.

GAUZATU-Turismo programa lagungarria izan da turismo-azpiegituren eta horien ekipamenduen modernizazioa bultzatzeko, baita turismo-enpresa berritzaileen garapen teknologikoa bultzatzeko ere. Urteetako funtzionamenduak emandako esperientziak enpresa-proiektuak bultzatzeko bideraturiko finantza-tresna horiek bideragarritasuna eta sektore-interesa berrestea ahalbidetzen du, inbertsio-arriskuak partekatuta betiere.

Eusko Jaurlaritzak turismoa bultzatzen jarraitu nahi du aberastasuna eta enplegua sortzeko. Ildo horretan, turismoa merkaturatzeko eta sustatzeko laguntzak abiarazi zituen joan zen astean. Eusko Jaurlaritzaren Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailak turismoaren sektoreari ematen dizkion laguntzen zati bat dira laguntza horiek guztiak. Gauzatu-Turismo programa, azken hiru urteotan sailak berak turismoa sustatzeko buruturiko politikekin batera, turismo-establezimenduak modernizatzeke diru-laguntzak, turismo-lehiakortasuna bultzatzeko laguntza-programak eta sektorean bertan kalitatea eta ingurumena kudeatzeko ematen direnak barne, azken bi urteetan Euskadin turismoa % 17 hazi izana ahalbidetu duten faktoreak ditugu. Datu horiek biltzen dutenez, atzerriko % 26,4 bisitari gehiago eta Estatuko % 13,7 turista gehiago iritsi dira gurera.

lazkoa Euskadiko turismoaren historiako urterik onena izan zen. Bisitarien etorrera % 4,6 hazi zen, eta ostatu-gauak, berriz, % 4,8, eta, gainera, urtarilean % 4ko igoera izan da bi kontzeptu horietan.

Teknologia-oinarria duten eta/edo berritzaileak diren enpresen inbertsioak 26 milioi euroekin finantzatu ditu Eusko Jaurlaritzak

Erabakia, teknologia-oinarriko ETEak edota berritzaileak sortu eta garatzen laguntzeko Gauzatu-Industria programa 2012an finantzatzeko 5.000.000 eurotik gorako gasturako baimena ematekoa

Berritzaileak diren eta/edo teknologia-oinarria duten enpresen aktibo finkoetan egindako inbertsioei laguntzera bideratuta daude laguntza horiek.

Laguntzak aurrerakin itzulgarri moduan emango dira, inbertsioa egiteko 3 urtera arteko epeak emanez, eta 10 urte artekoak aurrerakina itzultzeko.

Laguntza lor dezaketen proiektuek 120.000 euroko gutxieneko inbertsiora iritsi beharko dute, eta gutxienez 3 lanpostu sortu beharko dituzte 36 hilabeteko epean.

Programa horren helburua 50 proiekturi laguntzea da, 100 milioiko inbertsio induzitua eta 500 lanpostu inguru sortuz.

Eusko Jaurlaritzak bere Kontseiluaren bidez onartu du laguntzen bidez 26 milioi euroko diru-kopurua bideratzea teknologia-oinarriko ETEen eta/edo berritzaileen inbertsioak bultzatzeko. Estrategia horren helburua gure produkzio-sarearen lehiakortasuna sustatzea da, gainera enplegua sortzen duten inbertsioak bultzatuz.

GAUZATU-Industria programa ETEetara bakarrik bideratuta dago. Teknologia-oinarriko eta/edo berrikuntzako maila handia duten enpresetan ekintzailentzarako eta arriskuak bere gain hartzeko ahalmena bultzatzen duten baldintzak ezarri eta bultzatu nahi ditu. Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailaren asmoa da enpresek, teknologiaren eta berrikuntzaren bitartez, produktu berriak garatzea edo produktu tradizionalak merkatu berrietan sartzeko, edota fabrikazio-prozesuetan hobekuntza teknologikoak lortzea euskal enpresen produktibitatea handitzeko. Ildo horretan, informazioaren eta komunikazioaren teknologietan (IKT) egindako inbertsioak ere barne hartuta daude.

Gauzatu-Industria programak babestutako proiektu guztiek 120.000 euroko gutxieneko inbertsiora iritsi beharko dute, eta gutxienez 3 lanpostu sortu beharko dituzte 36 hilabeteko epean. Jaurlaritzak enpresa berri horiei emango dien laguntza gehienez ere inbertsioaren % 35 izango da, eta proiektu bakoitzari gehienez ere 1,5 milioi euroko emango zaizkio.

Laguntza horiek lor ditzaketen erakundeak erauzketa, eraldakuntza eta produkzio prozesuei lotuta dauden ETE industrialak dira, eta informazioaren eta komunikazioaren gizarteko ETEak.

Jaurlaritzak programa horrentzat ezarri duen helburua 50 proiekturi laguntzea da, 100 milioiko inbertsio induzitua eta 500 lanpostu inguru sortuz.

Eusko Jaurlaritzak finantzaketa-formula alternatiboak bultzatzen ari da, Euskadi barruan ekonomia-jarduera sortzeko baliabideak lortzeko garaian enpresek dituzten zailtasunen aurrean. Gauzatu-Industria programak Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailak 2012rako ezarritako bi lehentasun biltzen ditu, hau da, gure ETEei finantzaketa erraztea eta merkatura bideratutako teknologian inbertsioak bultzatzea. Bi horiek Euskal Herriaren lehiakortasuna hobetzea dakarte.

Epsilonek 3,3 milioi itzuli beharko ditu, hartutako konpromisoak ez betetzeagatik

Erabakia, Epsilon Euskadi, S.L. sozietateari irekitako ez-betetze espedientea ebazteko dena, hain zuzen ere, hasierako inbertsioak egiteko eta, proiektu estrategikoa izanik, inbertsio horiekin lotutako enplegua

sortzeko programaren barruan onartutako itzuli beharrik gabeko diru-laguntza dela-eta (2007ko deialdia)

2007ko abenduaren 26an, Jaurlaritzaren Kontseiluak zera erabaki zuen, Epsilon Euskadiri itzuli beharrik gabeko diru-laguntza bat ematea, proiektu estrategikoetan inbertitzeko laguntza-programaren esparruan. Alabaina, Joan Villadelprat jaunak zuzendutako enpresak ez ditu laguntza eragin zuten baldintzak bete.

Horregatik, 2011ko azaroaren 26an, Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailak konpainiari ez-betetzeagatiko espedientea ireki zion, gaur amaitu dena Jaurlaritzaren Kontseiluak ez-betetzearen deklarazioa onartu ondoren. Erabaki horri jarraiki, Epsilon Euskadik behar ez bezala jasotako zenbatekoa, hau da, 3.045.000 €, itzuli beharko du, eta horri 313.816,32 € erantsi beharko dizkio legezko interes gisa.

Orain hilabete batzuk, Arabako Parke Teknologikoan kokatutako enpresak hartzekodunen konkurtsoa eskatu zuen, eta, horrenbestez, hemendik aurrera Eusko Jaurlaritza ere haren hartzekodun izango da.

Espedientearen kronologia:

-2007ko irailaren 19a: Epsilonek diru-laguntza eskaera aurkeztu zuen, eta, horren arabera, 2007ko uztailetik 2011ko ekainera bitarte 97 enplegu sortzeko eta 30.450.000 € inbertitzeko konpromisoa hartu zuen. Hiru hilabete geroago, Jaurlaritzaren Kontseiluak itzuli beharrik gabeko 3.045.000 #-ko diru-laguntza emateko erabakia hartu zuen.

-2008ko uztailaren 28a: Eusko Jaurlaritzak enpresari 1.315.603,17 € ordaindu zizkion.

-2008ko abenduaren 15a: Eusko Jaurlaritzak Epsiloni 738.562,22 € ordaindu zizkion.

-2009ko uztailaren 13a: 348.088,20 € ordaindu zitzaizkion.

-2010eko abenduaren 28a: enpresak 642.746,41 € jaso zituen Jaurlaritzatik. Diru-kopuruak ordaintzen dira laguntza jaso dezaketen inbertsioen (32.966.131,06 €) arabera.

-2011ko ekainaren 20a: enpresak enplegua betetzeko luzapena eskatu zuen.

-2011ko ekainaren 23a: Industria Garapeneko Zuzendaritzak Epsilonen konkurtso aurreko prozeduraren hasieraren berri izan zuen, eta, luzapen horren emakida zehatz-mehatz aztertzeko xedearekin, zenbait azalpen eta dokumentu eskatu zizkion. Ondoren, borondatezko konkurtso-prozeduraren deklarazioari buruzko informazioa jaso zuen, 2011ko irailaren 7ko autoaren bitartez.

-2011ko irailaren 26a: Epsilon Euskadiri ez-betetzeagatiko espedientea ireki zitzaion, aipatutako laguntza-programaren Aginduaren 4.2 artikuluan ezarritako gutxienekoak bete izana ez justifikatzeagatik. Enpresari 15 eguneko epea eman zitzaion bere interesak defendatzeko egokitzat jotzen zuena adieraz zezan.

-2011ko urriaren 20a: Epsilonek idazki bat aurkeztu zuen, ekainaren 23an eskatutako dokumentazioarekin batera. Inbertitzaile baten bila zebilela zioen, eta enplegu-luzapena aktibatze eskaera egin zuen. Nolanahi ere, jardun horiek ez dituzte ez indargabetzen ez justifikatzen ez-betetzea eragin duten gertaerak.

Egoera horren aurrean, Eusko Jaurlaritzak ez-betetzearen espedientea ebatzi behar du, eta jasotako diru-kopuruak erreklamatu behar ditu.

3 milioi euro baino gehiago Euskadiko turismoaren lehiakortasuna hobetzeko

Ebazpena, 2012ko martxoaren 16koa, Merkataritza eta Turismoko sailburuordearena, 2012ko ekitaldirako Euskadiren turismo lehiakortasuna bultzatzeko laguntza-programa arautzen duen Aginduan finkatutako esparruaren barruan laguntzak emateko deialdia iragartzen duena

Jaurlaritzaren gaurko Kontseiluak Euskadiko turismoaren lehiakortasuna hobetzeko laguntzetarako 3 milioi euro baino gehiago onartu ditu. Eusko Jaurlaritzak, Euskal Turismoaren 2010-2013ko Lehiakortasun eta Berrikuntza Plana eta Euskadiko Turismo Marketin Plana (2010-2013) egin ondoren, euskal sektore publikoko erakundeetarako eta irabazi-asmorik gabekoak izanik turismo-sektorean diharduten bestelako erakunde pribatuetarako dinamizazio-laguntzak berrantolatu zituen. Egituraketa berri hori kontuan hartuz, laguntza horiek abiarazi zituen, turismo-helmugak antolatzeke eta arestian adierazitako planetako ikuspegiarekin bat egiteke.

Turismoak sorturiko oparotasuna eta enplegua areagotzeko jomuga orokorra dute laguntza horiek, turismo-industriako enpresen eta erakundeen lehiakortasunaren bitartez, eskaintzaren aniztasuna eta kalitatea garatuz eta Euskadi aitortutako turismo-marka gisa kokatuz.

Horri dagokionez, Eusko Jaurlaritzak honako hauek sustatzen ditu: EAEn kokatutako udalak, udal-sozietate publikoak, enpresa-alorreko udal-erakunde publikoak, kuadrillak eta mankomunitateak, tokiko eta eskualdeko garapen-agentziak, landa-garapenerako elkarteak, turismo-partzuergoak eta berezko izaera juridikoa duten eta turismoa sustatzen duten bestelako eskualde-erakundeak, eta irabazi-asmorik gabeko elkarte edo erakunde pribatuak, betiere horien helburuetako bat turismo-jardueraren garapena bada.

Laguntzak jasoko dituzten erakunde horietako edozeinen jardunak honako hauek dira:

-Helmugen eta produktuen elkarlan- eta kudeaketa-egiturak indartzea, betiere turismo-sektoreko eragile publiko eta pribatuak biltzen badituzte.

-Helmugen lehiakortasuna hobetzea.

-Lehentasunezko sektoreetako produktu-planekin -"Euskadiko Turismo Marketin Planean" eta Merkataritza eta Turismo Sailburuordetzak sustatutako turismo-plan zuzentzaileetan halako gisa definitutakoekin- eta aipatutako "Euskadiko Turismo Marketin Planean" identifikatutako Esperientziekin, Playgroundekin eta Zirkuituekin bat datozen turismo-produktuak sortzea eta garatzea.

- Eta produktuen, Esperientzien, Playgrounden eta Zirkuituen eta helmugen sustapen- eta marketin-jardunak ezartzea.

Laguntzen zenbatekoak ezartzeko, tokiko esparrua, tokiz gaindiko esparrua eta EAeko hiru hiriburuak bereizten dira. Gehieneko zenbatekoak, bestalde, honako hauek dira: 280.000 # lurralde handiagoak biltzen dituzten erakundeetarako (hiru hiriburuak eta eskualdeko turismo-lankidetzarako erakundeak),

240.000 eskualde-esparruko gainerakoetarako, eta 150.000 toki-esparruko erakundeetarako.

Hona hemen laguntza horiek zuzenduta dauden kontzeptuen adibide bat: langileak kontratatzea % 85en eta % 90en, pertsona bakoitzeko gehienekoa 38.500 izanik, eta Jaurlaritzaren marketin-planarekin bat datozen produktuak, esperientziak, playgroundak edota zirkuituak sortzea eta garatzea, 100.000-150.000 euro jaso ditzaketenak, toki-esparrukoak, tokiz gaindikoak edo hiriburuak ote diren ere kontuan hartuta, hain zuzen.

Eusko Jaurlaritza hainbat modutan eta zenbait inbertsio eta laguntza-linearekin ari da laguntzen Euskadiko turismoa, EAEn oparotasuna eta lanpostuak sortzeko aukera handiak izanik hazten ari den sektorea dela baiteritzo. Helburu horrekin, hainbat laguntza abiarazi ditu, batetik, enpresa pribatuetarako, negozioen kalitatea, kudeaketa eta berrikuntza hobetzeko xedez, eta bestetik, Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Saileko sustapen-politikekin batera lan egiten duten erakunde publikoetarako.

Eusko Jaurlaritzak laguntzetan emango dituen 1.346.000 euroekin modernizatu ahalko dira turismo-establezimenduak

Eusko Jaurlaritzaren Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailak Euskadiko turismo-establezimenduak modernizatzeko laguntzen programa bikoiztu egin zuen 2011n, eta deialdi honetan ere 226.000 eurotan gehitu du.

2011ko laguntzek 8,8 milioitik gorako inbertsioa eragin zuten, 2010ean baino % 500 gehiago.

Jatetxe, taberna eta kafetegiez gain, turismo-ostatuak, bidaia-agentziek, interpretazio-zentroek, turismo-garraioak eta turismo aktiboak ere balia ditzakete laguntza horiek.

Jaurlaritzaren Kontseiluak laguntzak onartu ditu turismo-sektorea modernizatzeko, 1.346.000 euroko zenbatekoaz. Turismo-sektoreko enpresen modernizazioa bultzatzeko linea abiarazi zuen 2010ean Eusko Jaurlaritzak. 2011n, Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailak bikoiztu egin zuen inbertsioa eta 1.120.000 euro bideratu zituen establezimenduek aldaketak egin zituzten kudeaketako tresna eta azpiegiturretan, horri guztiari esker turismo-eskaintza gero eta lehiakorragoa izan zedin.

Turismoa da azken hiru urteetan gehien hazi den sektorea % 17arekin, eta hori horrela, Eusko Jaurlaritzak erabaki du laguntzen programa hori aurten 226.000 eurotan gehitzea, hau da, % 20 gehiago, aurrekontu-egoera zaila gorabehera.

Sukaldaritzan jarduten duten negozioak ez ezik, honako hauek ere izango dira laguntzen onuradun: jatetxe, taberna eta kafetegiak, turismo-ostatuak, bidaia-agentziak, interpretazio-zentroak, turismo-garraioa eta turismo aktiboa.

Guztiak ere itzuli beharrik gabeko diru-laguntzak dira eta eskaera aurkezteko datan jadanik egikaritu diren

inbertsioak finantzatzera bideratuta daude. Honako kasu hauetan jaso ahal izango dira: ekipamendu informatikoak, horien aplikazioak eta osagarriak erosi eta instalatzea eta wifiguneak prestatzea; Euskadiko Turismoko Irisgarritasun Ereduari atxikitako establezimenduen irisgarritasuna hobetzea, zerbitzuak pertsonen dibertsitate funtzionaletara (fisikoa, bisuala, entzunezkoa, intelektuala eta organikoa) egokituz; eta zerbitzuaren eskaintzari balio erantsia eman eta erakargarritasuna hobetzea ekarriko duten inbertsioak.

Ildo beretik, turismoaren sektoreko enpresaburuek jarduera egikaritzen deneko lokala, altzariak eta ekipamendua eraberritu eta modernizatzeko laguntzak jaso ahaliko dituzte, baita sukaldaritza-zerbitzuak eskaintzen dituzten establezimenduetan sortutako hondakinak biltzeko sistemak eskuratzeko ere, instalazioak (barrak, zoruak eta abar) modu iraunkorrean garbi izateko lagungarri diren aldetik. Askotariko material, ekipamendu eta elementuak modernizatzeko laguntzak ere emango dira, hain zuzen ere, kirol-materiala, audiogidak eta abar, eta garraioetan erreformak eta egokitzapenak egitea ere diruz lagunduko da, turismorako erabiltzeko baldin badira (erosketa ez da sartzen).

Aipatu behar dugu, jatetxe, taberna eta kafetegien kasuan, terrazak prestatu eta modernizatzegatik eta urte osoan turismo-erabilera izateko egokitzapenak egiteagatik izaten dituzten gastuak ere estaliko direla.

24.000 euroko laguntza gehienez

Laguntzak, gehienez, enpresek egindako inbertsioaren % 40 izan daitezke, kalitate-ziurtagiria edo jardunbide egokiei buruzko ziurtagiria duten edo irisgarritasun-zigiluak dituzten enpresentzako hobaria barne. Establezimendu bakoitzak 12.000 eurotik 24.000 eurora bitarteko diru-laguntza jaso dezake gehienez deialdi bakoitzean, inbertsio motaren arabera.

2010ean, 400.000 eurotik 550.000 eurora gehitu behar izan ziren aurrekontuan bilduriko laguntzak. Horri esker, 211 establezimenduk jaso zuten laguntza eta, diru-laguntza horiei esker, enpresek 1,5 milioi euroko inbertsioa mobilizatzeko aukera izan zuten. 2011n, 8.831.785,33 eurora iritsi zen zenbateko hori, hau da, % 500eko gehikuntza, eta ia 300 establezimendu modernizatu ahal izan ziren horri esker.

ENPLEGU ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA

Euskadik seme-alabentzako laguntza ematen jarraituko du, krisia eta estatuan izandako murrizketak gorabehera

Erabakia, seme-alabak dituzten familientzako diru-laguntzak arautzen dituen Dekretuaren babespean ezarritako laguntzei aurre egiteko, 5.000.000 eurotik gorako gastua egiteko baimena ematekoa

Enplegu eta Gizarte Gaietako sailak 400 eta 900 euro bitarte emango ditu lehenengo seme edo alabagatik, eta 1.100 bigarrenagatik.

57 milioi euro inbertituko ditu seme-alabengatik laguntzetan eta kontziliazioan, eta arlo horretan

laguntza gehien ematen dituen autonomia erkidegoa izango da.

"Familiei laguntzea eta kontziliazioa bultzatzea da oraindik gure apustua; politika hori ekonomiarentzat ere pizgarria delako", azpimarratu du Gemma Zabaletak

Euskadi are gehiago finkatu da seme-alabak dituzten familiei eta kontziliazioari laguntza gehien ematen dien autonomia-erkidego gisa, gaur Eusko Jaurlaritzak 57,48 milioi euroko aurrekontu-saila onartu baitu. Horrela, Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak 27,44 milioi euro jarriko ditu seme-alaben jaiotza edo adopzioarako laguntzetarako. Beste 30,04 milioi euro erabiliko ditu lana, familia eta bizitza pertsonala bateragarri egiteko laguntzetarako; 2009. urtean baino % 62 gehiago.

Beste autonomia-erkidego batzuetan era horretako laguntzak kendu edo murriztu diren bitartean, Eusko Jaurlaritzak 400 eta 900 euro bitarte ordainduko ditu lehenengo seme edo alabaren jaiotza edo adopzioagatik, urtesari bakar batean ordainduta. Kopurua aldakorra izango da, familia-unitatearen errentaren arabera. Bigarren seme edo alabagatik laguntzak 1.100 eurokoak izaten jarraituko dute jaiotza edo adopzioaren urtean, eta 400 eurokoak lehenengo urtebetetzean. Hirugarren semea edo alaba daukaten familiei dagokienez, Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak 6.300 euro ordainduko dizkie, zazpi urtesaritan banatuta.

Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuak Eusko Jaurlaritzaren ahalegin hori baloratu du, eta "seme-alabak dituzten familiei laguntzen jarraitzeko politikak dira gure apustua" adierazi du. "Politika horiekin, errenta ematen diegu gure familiei. Politika horiek pizgarriak dira ekonomiarako, eta horregatik aplikatzen jarraitu behar ditugu, ekonomia suntsitu ez dadin, kontsumoak jarraitu dezan, eta hazkunderaren bidea zabaldu dadin; izan ere, hori da etorkizunean enpleguari eusteko modu bakarra", azpimarratu du Zabaletak.

Horren ildotik, "ekonomia geldiarazten duten politikak zero hazkunderako politikak dira, eta beraz, ekonomia gelditu eta langabezia eragozten dute. Gure ustez familien eta enpresen esku errenta jartzen jarraitu behar dugu, ekonomiak funtzionatu dezan", adierazi du Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuak.

Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak seme-alabak dituzten familiei laguntzeko eta kontziliazioa sustatzeko dituen programak Euskal Autonomia Erkidegoko familiei laguntzeko Erakundearen arteko III. Planaren barruan kokatzen dira, eta plan hori iazko abenduan onartu zuen Jaurlaritzak. Programaren helburu nagusia da "eskubide subjektiboaren ikuspegitik, familiak beren bizitzaren ziklo osoan sustatzeko, osatzeko eta haiei laguntzeko familia-politika sustatzea".

Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak seme-alabak dituzten familiei laguntzeko jarriko dituen 27,44 milioiei dagokienez, aurrekontu-sail horrek hiru laguntza-lerro izango ditu:

1. Kargurako seme edo alabagatik. 400 eta 900 euro bitarte ordainduko dira lehenengo seme edo alabaren jaiotza edo adopzioagatik. Kopurua aldakorra izango da, familia-unitatearen errentaren arabera. Bigarren seme edo alabagatik laguntzak 1.100 eurokoak izaten jarraituko dute jaiotza edo adopzioaren urtean, eta 400 eurokoak lehenengo urtebetetzean. Hirugarren semea edo alaba daukaten familiei dagokienez, Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak 6.300 euro ordainduko dizkie, zazpi urtesaritan banatuta.

2. Erditze edo adopzio nazional anizkoitzagatik. Familia unitateko seme-alabaren artean zenbatgarrena denaren arabera dagozkion laguntzez gain, 2.000 eta 4.000 euro bitarteko ordainketa bakarra emango da, familiaren errentaren arabera.

3. Nazioarteko adopzioagatik. Familia unitateko seme-alaben artean zenbatgarrena denaren arabera dagozkion laguntzez gain, 3.500 eta 7.000 euro bitarteko ordainketa bakarra emango da, familiaren errentaren arabera.

Laguntza-lerro hau familiei laguntzen dieten eta familien autonomia faboratzen duten zerbitzuak, neurriak eta politikak sustatzera zuzendutako politiketan kokatzen da, Familia-bizitza, bizitza pertsonala eta lan-bizitza modu arduratsuan uztartzeko aukerak bultzatzea helburu hartuta, batetik, eta familietako kideak zaintzeak eta familiek beren familia-proiektuak garatzeak sortutako gastuak konpentsatzeko, bestetik.

Bestalde, lana eta familia bateragarri egiteko 2012. urtean jarritako 30,04 milioien helburua ondorengo egoerentarako laguntzak ematea da.

1. Langileen eszedentzia edo lanaldi-murrizketa, seme-alabak zaintzeko. Baita mendetasun-egoeran edo osasun-egoera oso larrian dauden senitartekoak zaintzeko ere.

2012. urtean atal horretan emandako laguntzen urteko kopuruak honakoak izan dira:

3.255 euro eszedentzientarako.

2.604 euro lanaldia % 45 edo gehiago murrizteko.

2.325 euro lanaldia % 40tik % 45era murrizteko.

2.046 euro lanaldia % 33,33tik % 40ra murrizteko.

2. Seme-alaba adingabeak zaintzeko langileen kontratazioa.

2012. urtean atal horretara zuzendutako laguntzak kopuru hauetara iritsiko dira:

Kontratatzailearen kargurako kostu sozialen % 93 familia-errenta estandarizatua 28.000 eurokoa edo txikiagoa bada.

Kontratatzailearen kargurako kostu sozialen % 69,75 familia-errenta estandarizatua 28.000 eurotik gorakoa bada.

OSASUN ETA KONTSUMO SAILA

Prestakuntza sanitario espezializatuaren egitura arautzen duen dekretua onartuta

Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoan prestakuntza sanitario espezializatuaren sistema antolatzeari buruzkoa

Gobernu Kontseiluak otsailaren 8ko 103/2008 Errege Dekretuan jasotako oinarritzko printzipioak garatzen

dituen dekretua onartu du. Aipatutako azken dekretu hau Autonomia Erkidegoek prestakuntza sanitario espezializatuko xedapenak ebazteko eskumenak emateari buruzkoa da. Indarrean sartuko denetik, hurrengo prozedura hauek arautuko dira: ikasketa-buruak izendatzea, aitortzea, pizgarriak ematea eta aldizkako ebaluazioa egitea; tutoreak izendatzea, kreditatzea eta aldizka ber kreditatzea; eta tutoreen jardueraren errekonozimendu espezifikoak.

Araudi berri honen arabera, tutoreek orain lanaldiaren barruko dedikazio espezifikoak izango dute prestakuntzarako; karrera profesionala errekonozituko zaie; eta banakako pizgarri ekonomikoa izan dezakete.

Dekretu honetan lehendabiziz ezarri da tutoreen aldizka kreditatzeko prozedura. Lau urtero ebaluatuko dituzte kreditazio berria lortzeko.

Figura berriak ere sortu dira, adibidez, prestakuntza sustatzeko teknikaria eta beste berri batzuetarako atea irekita utzi dute, esate baterako, enbor-tutorea. Halaber, sistema honetan tutore laguntzaileak eta unitate asistentzialetako buruak (zerbitzuburuak) daude.

Gaur egungo egitura honek 16 Zentro edo ikastetxe dauzka, horrela banatuta: 8 ospitale eta 2 irakaskuntza-unitate (Laneko Medikuntza eta Medikuntza Prebentiboa eta Euskal Autonomia Erkidegoko Osasun Publikoa), familiako eta komunitateko medikuntzako 3 irakaskuntza-unitate eta erizaintzako 2 irakaskuntza-unitate: Osasun Mentala, eta Obstetrizia eta Ginekologia nahiz Bizkaiko Osasun Mentaleko Sareko lanbide askotako irakaskuntza-unitatea. Gainera, 437 tutore daude 46 espezialitatetan, eta 2011-2012 ikasturtean 1.290 egoiliarri prestakuntza eskaini zaie. Azkenik, auditorien bitartez, zentro edo Irakaskuntza Unitate bakoitzak SNSren Kalitatearen Agentziaren kreditazioa jaso du.

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

Eusko Jaurlaritzak 21.300.000 euroko kreditua bideratu du FEADER eta FEAGA funtsetatik

Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren 2012. ekitaldiko Aurrekontuko "Europar Batasunarekiko Finantza-harremanak" 9311 programan diru-sarrerak lortu direla-eta, "Nekazaritza eta Landa Garapena eta Itsasbazterra" 7111 Programan 21.248.637,28 euroko kredituak gaitzeko dena

Gobernu Batzordeak onartu duen dekretuari esker 21.248.637 euroko kreditua izango da Erakunde Ordaintzaileak Nekazaritza eta Abeltzaintza esparruan, ordainketa bakarrera, ordainketa akoplatura eta kalitatea eta kalteberak diren landa eremuetarako laguntzetara bideratzeko.

Kreditu horrek, Eusko Jaurlaritzak urtero bideratzen duenak, FEAGA (Nekazal Bermaren Europako Funtza) eta FEADER (Landa Garapenerako Europako Funtza) funtsen bitartez finantzatzen diren ordainketak osatzen ditu.

Zehatz mehatz, abeltzaintzako ustiategiak, landa eta abere ekoizpena eta ingurumen politikak, kalitatezkoak eta kalteberak diren eremuentzako dirulaguntzak bideratzen jarraitzeko neurriak dira horiek.

Bideratu den kredituak, era berean, Euskal Autonomi Erkidegoko Landa Garapenerako 2007-2013 Planaren neurri ezberdinak finantzatzeko balioko du.

KULTURA SAILA

Eskoriatzako Atxorrotzeko Gazteluaren Gune Arkeologikoa (Gipuzkoa) monumentu kategoriako sailkatutako kultura-ondasun deklaratu da

Dekretua, Eskoriatzan (Gipuzkoa) dagoen Atxorrotzeko Gazteluaren Gune Arkeologikoa (lehen #Aitzorrotz#), monumentu izendapenez, sailkatutako kultura-ondasun deklaratzeko dena

Gaurko bilkuran, Eskoriatzako Atxorrotzeko Gazteluaren Gune Arkeologikoa (Gipuzkoa) monumentu kategoriako sailkatutako kultura-ondasun deklaratzeko duen Dekretua onartu du Jaurkitzearen Kontseiluak. Atxorrotzeko Gazteluaren Gune Arkeologikoa babesteko beharrezkotzat jotzen den eremuak interes historiko-arkeologiko nabarmena duen aztarnategi honetako okupazio-hondakinak biltzen ditu, hain zuzen, eremu horretan egindako lan arkeologikoei esker gaur egun arte ezagutzen ditugunak.

Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordearen 2011ko irailaren 22ko Ebazpenaren bidez, Eskoriatzako (Gipuzkoa) Atxorrotzeko Gazteluaren Gune Arkeologikoa (bibliografia zientifikoan Aitzorrotz izenez ere ezaguna), monumentu izendapenez, sailkatutako kultura ondasun deklaratzeko espedienteari hasiera eman, jendaurrean jarri eta interesdunei entzuteko epea eman zen. Informazioa jendaurrean jartzeko eta interesdunei entzuteko epea amaitu eta ez da bat ere alegaziorik aurkeztu. Legez ezarritako epeak igaro ondoren, Eskoriatzako Atxorrotzeko Gazteluaren Gune Arkeologikoa (Gipuzkoa) monumentu kategoriako sailkatutako kultura-ondasun deklaratzeko duen dekretua onartu da.

Atxorrotzeko Gazteluaren Gune Arkeologikoari eman zaion babes-maila kontserbaziokoa da. Gure erkidegoko arkeologian azpimarragarria izateagatik eman zaio babes-maila hori, bere ingurua hondatuko luketen jarduerak saihestearren.

Kontserbazioaren babes-mailak bermatu egingo du kontserbatu beharreko monumentuak kalterik ez jasotzea. Bertan burutu ahal izango diren jardueren helburua izango da babestutako ingurunean gizakiaren lehengo jardura ulertzen lagundu dezaketen oraingo egiturak -edo lehengo aztarnak- finkatzea edo zaharberritzea, ez besterik.

Gaztelua bere landa-ingurura egokitzea sustatuko da, baldin eta hori egiteak ez badu gaztelua bera funtsean aldatzen. Bertan kultura, turismo eta aisiari lotutako ekimenak egitea sustatuko da.

Atxorrotzeko Gazteluaren Gune Arkeologikoaren eremuan edozein jardura egin baino lehen, Gipuzkoako Foru Aldundiaren alde aurreko baimena beharko da, aldundia baita babes-araubide honetan ezarritakoa

betetzen dela bermatuko duena, betiere Aizkorri-Aratzeko Parke Naturalaren organo kudeatzaileak ingurumenaren alorrean dituen eskumenak errespetatuta.

Atxorrotzeko Gazteluaren Gune Arkeologikoan egiten diren esku-hartzeak gauzatzeko Gipuzkoako Foru Aldundiak ematen dituen baimenak Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailari jakinarazi beharko zaizkio, gainerako interesdunei bezalaxe.

Deskribapena

Bolibar auzoan, Eskoriatzako udalerrriaren SWko ertzeko haitz batean, 738 metroko garaieran, Atxorrotzeko Santi Kurutzeko ermita dago. Toki horretan, Arlabango pasabideari gaina hartuta, Goi Erdi Aroko gaztelu garrantzitsuenetako bat dago, inguruan oraindik lekukotasun nabariak gordetzen dituen.

Tokia arretaz aztertuz gero, gazteluaren hondakinen nondik norakoak antzeman daitezke: oinplano trapezoidaleko esparru nagusia, 500 bat metro karratukoa, eta hari hegoaldeetik erantsita eta beheragoko maila batean, bigarren esparru bat, 250 metro karratukoa.

Iraun duten gotortze-egiturak, harkaitzaren gerria ixten dutenak, harkaitzaren hegoaldean eta mendebaldean daude nagusiki; iparraldetik eta ekialdetik, ordea, ez da itxitura beharrik, lurraren malda handiak berak sarbide oro ekiditen baitu. Hormak harlangaitzezkoak dira, kareharri txikiz eginak, ia arbastatu gabe eta argamasa ugari erabiliz. Hormen lodiera 1,5 eta 2 metro artekoa da, eta garaiera ez da metro eta erdira iristen.

Itxitura egiteko eraikitze molde hau ohikoa da honelako gotorlekuetan (harkaitz-gazteluak). Kokalekuaren berezko arroka baliatzen dute gotorlekuaren zatitza hartzeko. Horma-zatiak altxatzen dira, kanpo-itxitura funtzioa betetzen duen arrokaren berezko moldearekin tartekatuta, edo, bestela, arroka bera beheratu egiten da, hura zizelkatuz, dena delako erabilerari begira (uharka, egongelak...).

Sarbiderako atea hegoaldean dago, pasabide estu eta malda handiko batean. Gaur egun mailak daude bertan, eta itxitura metaliko bat du abereak pasa ez daitezen. Bertatik bigarren esparrura sartzen da, eta itxitura edo pasabide bikoitz bat dago dorre nagusia zegoen tokira heltzeko. Ustez, oraingo ermita dagoen tokian egongo zen dorrea XVI. mendean.

Mendiaren erpin gorenean, Gurutze Santuaren izenpeko ermita altxatu zen XVI. mendean. Oraingo oinplano laukizuzena eta lau isurialdeko estalkia 1953. urtean egindako zaharberritzearen ondorioa dira. Eraikinak ez du, antza, garrantzi handirik.

Ermitaren hego-hegalean uharka bat dago, beharbada teilatuko ura hobeto aprobe txatu aldera egindakoa. Haitzean egindako lana da, oinplano laukizuzena duena (4 bider 3.30 metroko oinplanoa, eta 1,50 metroko garaiera) eta 20.000 litro inguru jaso ditzakeena. Oraindik gordetzen ditu hormak iragazteko erabilitako argamasa-geruzaren hondar batzuk.

Haitz honekin aurrez-aurre, 70 metrora hegoalderantz, beste goi-haitz bat dago, gotortze-sistema beraren zatia izango zena, aurre-talaita modukoa, Erdi Aroko materialen hondarrak aurkitu baitira bertan. Gauza bera gertatzen da ermitaren NWan dauden harkaitzekin: aurkitutako material arkeologikoaz gainera, harkaitzetan bertan aztarnak baitaude biltegi edo halako egitura edo erakinak egiteko erabili izan direla frogatzen dutenak.

Navarra, 2 - 01007 VITORIA-GASTEIZ

tef. 945 018 095 - Fax 945 018 081 - e-mail prensa@ej-gv.es